



“Urnieta dantzan” jaialdia hamargarren ediziora iritsiko da maiatzaren azkeneko larunbatean; atzera begirakoa egiteko aproposa

## Merezitako saria Alejandro Gonzalez eta Isabel Santa Cruz mendizaleei



Urtarrilaren 1ean salda ematen egon ohi dira Adarran. Irudian Arantxa Garmendiarekin.



Alejandro Gonzalez eta Isabel Santa Cruz Euskalduna mendigoizale elkarteko egoitzan.

Urtarrilaren lehenean Adarramendin salda banatzen aritzeagatik ezagun dira Euskalduna Mendigoizale taldeko andoaindarrak. Kirol Merezimenduaren Saria jasoko dute laster.

Maiatzaren 31n Basteron egingo duten ekitaldian, bi mendizaleek Kirol Merezimenduaren

Saria jasoko dute. Aurtengo kirol asteko protagonista nagusiak izango dira, beraz, aurreko urteetan Andoni Alvarez edota Joxe Barberena izan ziren bezalaxe.

Omenaldi ekitaldiarekin batera, ekitaldi gehiago iragarri zituzten. Aurtengo lelo nagusia “Kirolean ere berdintasunean” izango denez, Real Sociedad eta Añorga klubaren arteko kopako partida jokatu da Ubitar-ten. Hurrengo egunetan ere Ire-

ne Caminos trial txapeldunaren edota Zumbako kirolarien erakustaldiez gozatzeko aukera izango da. Ixiar Olano Allurralde kiroldegiko arduradunak eta Ana Carrere Andoaingo alkateak aurtengo egitarauaren berri eman zuten astearte arratsaldean deitu zuten agerraldian.

Kirol asteko lehen jarduera “Zer dakizu kirolaz?” lehiaketa izango da, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean egiten dena.

*Aurtengo Kirol Asteko lelo nagusia “Kirolean ere berdintasunean” izango da*

### GOLF SAIOAK DOHAINIK

Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, Goiburu golf-ean dohainik aritzeko aukera eskainiko dute. Eskaintza haur eta helduei zuzenduta dago.

[KIROLA, 7. ORRIALDEA]

## Ontza elkartearen urteurrena



Ontza elkarteak 75. urteurrena ospatuko du igande honetan. 12:00etako meza eta gero, herri mailako ekitaldia egingo dute eta ondoren bazkideek bazkaria egingo dute.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Pilotazaleen hitzordua Arraten



Ostiral honetan Andoni Alvarezen mutilek Astigarraga-ko aurkariak mendean hartu nahiko dituzte.

[KIROLA, 7. ORRIALDEA]

## Parte hartzearekin pozik Urnietan

Urnietan etorkizuneko inbertsioak erabakitzeke parte hartze prozesua martxan izan da maiatzaren 9ra arte.

Udalak maiatzaren 12an emandako lehen datuen arabera, hamaika inbertsio estrategikoak aukeratzeko 1.411 proposamen jaso dituzte. Horietatik 182 online jaso dira, 308 informazio karpeta eta gainerako 921

proposamenak herrigunean zehar ipinitako buzoi eta kutxatan. Udalak bidalitako oharrean, Mikel Pagola alkateak balorazio positiboa egin du eta herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie. Ibatuz enpresak

prozesuarekin jarraituko du orain, hasteko eta behin proposamen horiei guztiei balioa emateko beharrezko konprobaketa lanak egiten ari dira. Eta jarrian proposamen bakoitzak jasotako babesa zenbatu.

# ANDOAIN TXARTELA

Beherapenak maiatzean

SALKIN DENDETAN BEHERAPENAK

**%10** arteko beherapena

gehienez 500eko erosketetan, eta baliorik gabe bidaiaria agentzia eta gasolindegietan

Gutxienez %5a atzeratutako erosketetan izan ezik

**%2** PETROMIRALLES GASOLINDEGIAN ETA ZERBITZUGUNEAN



## ERREDAKZIOTIK ESKATUTA



### URNIETAR BAT BERLINEN

Andoni Urbistondo

#### URNIETA

27 ordu daramatzat esna lerro hauek idazterakoan. Bigarren gau pasa dut, ia-ia, lau egunetan. Eta ez parranda egin dudalako. Ostegunean, Urnieta-Bilbo-Gasteiz-Berlin, goizaldeko 04:00an jaiki eta eguerdiko 14:00an iritsi hotelera. Bueltakoa okerragoa, igande goizeko 09.30an martxan, astelehen eguerdira arte. Baskonia tartean bada, dena egiteko prest. Lauko Finala gauza handia delako. Mosku eta Pragako F4-etan izan nintzen 2005 eta 2006an. 10 urte geroago Berlinen, lehena kazetari jardunean. Hamarkada bat atzera Baskonia Europako erregeetako bat zen, diruz eta izatez. Egun ez da, ez diruz behintzat, eta Lauko Finala arrakasta itzela da.

1.200 Baskonia zale Berlinen. Eta txaranga, eta dultzainero eta erraldoiak Alexanderplatz mitikoan. Saltsa eta festa giroa Mercedes Benz Arena pabilioi ederrean. 7.000 turkiar eta ehunka berlingar euskaldunoi beste planeta batekoak bagina bezala begiratzen. Guk Berlini bezala. Laua, zabala, handia, kosmopolita, anitza, 'merkea' kakotx artean, ezaguterraza. Dotorea Mercedes Benz Arena. Ez hainbeste bertako 'catering'-a. Batez ere janari bila errusiarren ondoren joaten bazinen.

F4a festa handia da. Saskibaloia epizentrea. Eta zure talde kutuna ezustean han bada, ba aukera ikaragarria. Tentsioa, urduritasuna. Hotelera iritsiko ote gara garaiz, irratian telefono konezio ona edukitzeko? Pabilioian azpiegitura ona izango al da? Gai izango ote naiz partida oso bat modu txukunean kontatzeko? Gaizka Maiza jokalaria eta Aitor Uriondo entrenatzailearen jakintzaren pare egongo ote naiz? Kazetari-kontalari baten azken uneko zalantzak.

Berotu naiz epaileekin, Obradovic Fehnerbace taldeko entrenatzaileari epaileek ematen dioten tratu bereziagatik, esan dugu Baskonia finalean zegoela... baina azken jaurtiketan Adamsen ahalegina kanpora, luzapena eta kanpora. Ezberdina da larunbata finala jokatu behar baduzu edo ez. Moskun, 2005ean, hazita geunden, final handiaren zain. Larunbatean, Berlinen, triste, zain, 'nolatan galdu dugu partida' bueltak eta bueltak ematen. Egin dugu turismo apur bat, Berlingo gaua ezagutu, eta finalarekin gozatu! 3 orduko partida ikusgarria. Aireportuan orduak egin ditugu, eta Baskoniako jokalariek alban izan ditugu, ilaran. Jendeak txalo artean hartu ditu. Nortasunez jarduten duten aldiro bezala. Baskonia izaera! Eta Istanbulera joango bagina? Urtebete geratzen zaigu. Aupa Baskonia!

## ERREDAKZIOAN JASOA

### ALKATE ANDREARI

Eugenio Ariztimuño Amas

#### ANDOAIN

Andoaingo udalerrri honetan lurrazpiko edukinontzi edo kontenedoreak kentzen ari dira. Alkatetzatik zabaldu duten ohar informatiboaren arabera lurrazpiko edukinontziak ixteko erabakiak, alegia, kentzekoak, eta lurrazaleko eztekoak arrazoiz hauei erantzuten die:

- Andoain da Mankomunitateko udalerrri bakarra edukinontzi sistema hau erabiltzen duena.
- Zabor bilketa bera eta edukinontziak txukun irauaraztea garestitu egiten omen du.
- Hainbat segurtasun arazo izan dute -argitu gabe zein arazo izan diren horiek- erabiltzaileek eta Mankomunitateko langileek.

Orain 20 urte Andoaingo Udalak herrian lurrazpiko lehenengo edukinontzi multzoa jarri zuen eta orduan aitzindari izan zen Gipuzkoan eta, geroztik, bateragarri izan dira zaborrak biltzeko bi modu horiek: lurrazpiko edukinontziena eta lurrazalekoena. Era berean, Tolosaldeko Mankomunitatean udalerrri batzuek atez ateko zabor bilketa dute eta, beraz, zail gertatzen zaigu ontzat ematea lurrazpiko edukinontziak kentzeko, Andoain denik lurrazpikoei eusten dien udalerrri bakarra, alegia biltzeko sistema ezberdin gehiago dagoela eskualdean lurrazpikoena baino.

Tolosaldeko Mankomunitatea 27 udalerririk osatzen dute eta horien artean Andoainek, biztanle kopuruan bigarrenak, kopuru osoaren % 26a da, eta Tolosarekin batera -biztanle

gehien duena berau-, guztizkoaren % 58a. Andoain bakarrik hartuta biztanle gehiago du 27 udalerrri horietako 23k baino eta egiten duen diru-ekarpena, andoaindar guztien patrikatik ateratzen dena, bere tamainaren eta sortzen duen zabor kopuruaren arabera da. Aurtent, 2016an alegia, zaborrak biltzeagatik, udal aurrekontuaren arabera, 1.400.000 euro ordainduko dugu.

Lurrazpian jarritako edukinontzi guzti-guztiak Udalak erosi eta jarritakoak dira hainbat urtetako udal aurrekontuen gain, eta Mankomunitatearen esku jarri ditu. Horrek, Mankomunitateak, zaborrak biltzeaz gain edukinontziak txukun zaindu beharra dauka, irauarazi, beharrezko gertatzen denean konponduz. Inolako daturik eman gabe lurrazpiko edukinontzietatik zabor bilketa garestitzen dutela esanez, nire iritziz, gai honi alde jakin batetik baizik ez zaio heltzen. Bestalde, egia da bai lurrazpikoak garbitzea eta irauaraztea lurrazalekoak baino garestiago dela, baina bitarteko tekniko eta materialak egon badaude lan horiek txukun eta egoki egiteko, eta hori da kontratu bidez Mankomunitateak bere bizkar hartu zuen betebeharra.

Lurrazpikoak kentzea zuri-tzeko esatea hainbat istripu egon dela edukinontzietatik bere oinean duten koskagatik, inolako daturik eman gabe, nire iritziz ez da oso sinesgarria, zeren eta gauza bera esan baikenek ez espaloietan ipinita dauzkagun kale altzarietako osagai guztiengatik, kale-hesola eta gontzengatik (piboteak),

esate baterako, handia baita ere horiekin estropezu egin eta min hartzeko arriskua.

Lurrazpiko edukinontzietatik garbi erakutsi dute urte hauek zehar zaborra biltzeko modu eraginkor, garbia, higienikoa eta hiri eta kale ingurunearekin bateragarria dela, baita lorategiak dauden alderdietan ere, eta edozein herritarrentzat erraz erabili eta iristeko modukoa.

Alkate andrea, nire iritziz argitara eman duzun oharrean adierazitako arrazoiak oso ahulak eta orokorrak izanik, eta Udalak hitz eman duen gardentasun eta partaidetza politikaren indarrez, ondorengo galderari erantzuna eman diezaietzun eskatzen dizut:

- Zenbat euro ordaindu behar du Udalak, herritar guztiek, lurrazpiko edukinontzi guztiak kentzeagatik?
- Gastu hori 2016ko aurrekontuan jasota al dago?
- Lurrazpiko edukinontziak kentzea Udal gobernuaren gastuetan lehentasunezkoa al da?
- Zuk Andoaingo auzoetan barrera izan dituzun bileretan, herritarrek eskatu al dizute ken ditzazuela lurrazpiko edukinontziak? Eta, hala izan bada, herritarrek azaldu dituzten kezka eta eskakizunen zerrendan zenbatgarrena zen hori?
- Nori egiten dio mesede lurrazpiko edukinontziak kentzeak? ¿Hainbat auzotan horiek ipinita dituzten herritarrei? Udalari? Mankomunitateari? Lurrazpiko edukinontziak kentzeari EZ!! Begirunez.

PiRRitx, PorROTx  
eta MaRiMotots  
AMALUR

Maiatzak 20, ostirala  
Egape Ikastolako | 17:30  
jolastoki estalkia | URNIETA

ANTOLATZAILEA:

AIURRI

INISTORRA



Misio Batzordeak eta Udalak elkarrekin sustatzen dute

## Etiopiara bolondres gisa joateko deialdi berria

Urnietako Misio Batzordeak, Udalarekin batera, herritar bat Etiopiara bolondres modura joateko deialdia egin du. Hiru hilabete inguruko egonaldia izango da eta hautaturiko pertsonari epe horretan oinarriko beharrak ordainduko zaizkio: hala nola, janaria eta lotarako lekua. Jose Ramon Jauregik ondotoxoa azaldu du hautagaiak zein baldintza bete behar dituen: "Lanerako gogoia eta ingelesa jakitea. Edozein ofizio jakiteak balio du: igeltsero, irakasle... Hori bai, ingelesa jakitea ezinbestekoa da. Han ingelesez komunikatzen dira eta bestela ezinezkoa da".

Aurten Urnietan jaiotako edo erroldatutako pertsona guztiak izango dute izen-emateko aukera. Dena den, gazteek lehentasuna izaten jarraituko dute. Izen-emateko epea irekita dago jada. Interesa duen orok kurrikuluma Gaztegunera bidali behar du. Behin eskaera guztiak jasota, elkarriketak egingo dituzte eta uztailaren amaieran hautaturiko pertsona nor den jakinaraziko dute.

**Info:**  
gazteinformazioa@urnieta.eus



Loritz Paulis izan zen Etiopian: "Bi aldiz pentsatu gabe, Wukrora joatea animatuko nituzke. Ez dira damutuko".



Maialen Hernández izan zen 2013an Wukro aldera hiru hilabeteko egonaldia egitera joan zen urnietarra.

Larunbat honetan Galarretako Orona-Ideo eraikinean

## Erraustegiaren ondorioei buruzko jardunaldiak

"Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak" aztergai izango ditu GuraSOS ekimen berriak, larunbat honetan. Hitzaldiak, mahai-inguruak izango dira arratsaldetik iluntzera. Egitaraua:



### MAIATZAK 21, LARUNBATA

16:25 Ate irekiera.  
16:30-17:30 Erraustegien eraginaren gainean argitaratutako informazio zientifikoaren azterketa. Hizlaria Fernando Palacios CSIC Ikerketa Zientifikoaren Goi Zentroko zientzialari titularra.  
17:30-18:00 Osasun publikoaren erraustegiak dituen eraginak. GEIS Erraus-

tegia eta Osasuna Taldeko txostenaren eta ekimenean azalpena.

18:00-18:15 Atsedena.

18:15-19:00 Ikerketa eta osasun arloko profesionalen foroa.

18:15-19:00 Hezkuntzako profesionalen foroa. Hezkuntza komunitateko eta sindikatuak partaidea.

18:15-19:00 Gizarte foroa: Javier Navascués jauna Rivas Aire Limpio (Madrid) plataformako burua eta Clara Perales Valdamingomezko erraustegiagatik minbizia dutenen kideetako bat, erraustegiaren arduradunen aurka salkatea jarri duenetakoa.  
19:15-19:30 Agurra.

### GUNE LUDIKOA HAUR ETA GAZTETXOENTZAT

16:00- 20:00 Gune ludikoa haur eta gaztetxoenentzat. Kanpoaldean saskibaloia, futbol eta brilet jolasak, herri kirolak, musika, eta abar.

## Bake eta bizikidetzaren plana



Urnietako PSE-EEko zinegotzi eta kideak.

Urnietako PSE-EEk agerraldia egin zuen aurreko astean, bake eta bizikidetzaren planari buruzko hausnarketa plazaratzeko. Planaren hainbat xehetasun zalantza jarri eta gero, kritika gogorra egiten dio gobernu taldeari: "Azken hautakundeetan EAJk gehiengo osoa eskuratu zuenetik, elkarbizitza alde batera utzi du".

Planak oreka falta duela dio: "Terrorismoa euren azalean pairatutako lekukotzak faltan bota izan ditugu". Bestalde, planak ez duela eraginkortasunik izan diote herritarren parte hartzea txikia izan baita. Eta bukatzeko, planak elkarbizitza oinarrian badu ere, "une hauetan Udala ez da elkarbizitzaren eredu".

## Baserritarren omenez



Meza ondoren hamaiketako eta bertso saioa antolatuta zuten Lekaion.

San Isidro baserritarren eguna iristearekin batera, Urnietako Udalak haien omenezko ekitaldiak antolatzen ditu. Aurreko ostiralean, meza eta

gero, herrigunera hurbildutakoak Lekaion gerturatu ziren hamaiketakoak eta Patxi Etxeberria eta Beñat Gaztelumendiren bertsoez gozatzera.

## Denda Berriren oharra

Elkarteak ohar bidez zabaldu duenez, maiatzean zehar bukatuko da kuota ordaintzeko epea. Ekainaren 1etik aurrera ordaintzen dutenek

euro bateko erretegia ordaindu beharko dute.

Elkarteak, bestalde, ekainaren 19an Soriara joateko txangoa antolatuko du.

## Odol emaileak Urnietan

Odo emaileek hitzordu berria dute maiatzaren 31n, ohi be-

zala 18:30etik 20:30era antolatorio zaharrean.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ANDOINGO JOKALARIARI GORAZARRE EGIN DIOTE BERE IZENA DARAMAN KALEA IPINIZ

# Isidro Langara kalea Oviedon

Isidro Langara Andoaingo futbol jokalaria handiaren izena Oviedoko kale bati jarri diote. Aurreko igandean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Langara familia ekitaldian bertan izan zen eta aurrez au-

rre begiztatu ahal izan zuen jokalaria zenbat maite duten Asturiasen; harro aldarrikatzen dute han futbolaren historian aurrelaririk onenen artean kokatzen dela Langara.

“Langara familiako hogeit bat ki-de joan gara Oviedora, eta maistasun handiz hartu gaituzte. Zoragarria izan da egin diguten harre-rra, eta batez ere, poztu gaitu ikusteak Isidro ez daukatela ahaztuta, oso harro aldarrikatzen dutela Oviedoko jokalaria izan zela”. **Junkal Guerrero** jokalaria-aren ondorengoa pozarren dago, Oviedotik itzuli eta hurrengo egunean. 1912ko maiatzaren 15ean jaio zen Isidro Langara, eta egun hori bera hautatu zuten Oviedoko kale bati ofizialki izen hori jartzeko. 1930eko hamarkadan Oviedon aritu ostean, arrasto sakona utzi zuen han. Kontsentsu zabala lortu du izendapenak: Bertako udala, Real Oviedo taldea, jokalaria beterranoen elkarte, kirol kazetariak, zaletuak... ordezkaritza zabala bildu zen Carlos Tartiere futbol zelaira daraman kalearen inaugurazio ekitaldira: Wenceslao Lopez alkatea, Jorge Menendez Real Oviedoko presidentea eta Junkal Guerrero Donostia, Elgoibar eta Andoaindik Oviedora joan zen Langara familiaren izenean.

Ondoren, Langara hitza eta 9 zenbakia daramatzen kamiseta eta brontzezko plakaren errepika familiari eman zioten, oroigarri gisa. Ekitaldian zehar, alkateak zein presidentek ozen aldarrikatu zuten Langara egundoko jokalaria izan zela, Oviedo taldearen historian urrezko sasoiaren parte hartu zuena. Langarak mitoa izaten jarraitzen du Asturias aldean.

Junkalek Isidro Langara gertutik ezagutzeko parada izan zuen; izan ere, Isidro Guerrero Langara familiarekin egin baitzituen bizitzaren azken urteak. Gizakiaren beste alde hori islatu zuen Guerrerok ekitaldian. “Berak ez zeukan autoa, eta gure aitarekin ibiltzen zen hara eta hona. Etxean, batez ere gure aitari makina bat istorio kontatu zizkion. Egia esanda, futbol munduan arrakasta eta fama handia lortu zuen arren, inoiz ez zuen apaltasuna galdu. Begietara begiratzen zizunean, magnetismo berezia bazeukala ohartzen zinen. Itxuraz ere inpresioa eragiten zuen horietakoa zen; egin kontu, behin Floyd koloniaren iragar-



Carlos Tartiere futbol zelaira daraman kalearen inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten Wenceslao Lopez alkatea, Jorge Menendez Real Oviedoko presidentea eta Junkal Guerrero andoaindarra Langara familiaren izenean. ©Cristian Vazquez (La Nueva España)

*“Oviedoko zenbait kazetari eta zale kontzientek gara Langara Espainiako jokalaririk handiena edo handienetakoa izan dela”  
David Alvarez kazetaria*

kia egiteko modelo gisa hartu zuten!”.

Harrokeriarik gabeko familia batean jaio eta hezi zen gerora ospe handiko jokalaria izango zena: “Bere familiak bodega -Gerora Uranga taberna izango zena- zeukan Zumea kalean, eta bera 14 urterekin lanean hasi zen Subijana lantegian, Etxeberrietan. Laneko buzo zikina etxera garbitzera eraman behar zuenean, pilota modura bildu eta futboleko baloia balitz beza-

la ostikoka eramaten omen zuen Etxeberrietatik Zumearaino”.

## JOKALARIRIK ONENETAKOA

David Alvarez Oviedoko kirol kazetaria da, eta Langararen biografia idazten ari da azken urteetan. Etorkizunean liburua argitaratzeko asmotan dabil, andoaindarraren inguruko testigantzak, argazkiak, kronikak, iritziak... jasota.

Bera izan da kalea izendatzearen aldeko eragileetako bat. “Oviedoko zenbait kazetari eta zale kontzientek gara Langara Espainiako jokalaririk handiena edo handienetakoa izan dela, baina urteak aurrera, ohartzen gara bere oroitzapena lausotzen ari dela. Jokatzeko ikusi zuten zaharrek egundokoak esaten dituzte golak sartzeko zeukan

abilidadeagatik, baina ondorengo belaunaldiek... Oviedoko jendearentzat ohore bat da Langara gure hiriko jokalaria izatea, eta hori dena berrestera dator kalearen izendapena. Etorkizunean, eskultura bat jartzea ere pentsatua dago, eta horretan gabiltza”.

Azken aldiaren estadistiken eta datuen aldeko sukarra piztu da Espainiako ligaren inguruan, eta fenomeno horri egozten dio Alvarezk Langara prentsan eta zaletuen ahotan aipatzen hasi izana azken aldiaren. “Estadistika hasten da egiten jendea, eta konturatzen da harriduraz, Langaren ondoren etorri diren Di Stefano, Maradona, Romario, Ronaldo, Messi, Suarez eta abar ez direla berak utzitako markak hausteko gai izan”.



Langararen senitarteko ugari hurbildu ziren kalearen inaugurazio ekitaldian. ©Cristian Vazquez (La Nueva España)

## MARKA GARAITEZINA

- Espainiako Ligan hiru partidatan segidan hat-trick-a (hiru gol partida batean) egin duen jokalaria bakarra da; Gaur arte ez **Cristiano Ronaldo** da, ez **Messik**, ezta **Luis Suarez** ere ez du lortu balentria hori.
- Espainiako selekzioan, proportzioan inoiz gol gehien sartu dituen da: 12 partidatan 17 gol.
- Bi kontinenteetan (Europan eta Amerikan) gol gehien sartu izanaren “Pichichi” titulua lortzen lehena izan zen. Haren atzetik bere marka berdinu dute **Romariok** eta **Di Stefanok**. Ez beste inork.

## IBILBIDE OPAROA

- 1912ko maiatzaren 15ean jaio zen Pasaian. Oso gaztetan Andoainera etorri zen bizitzera.
- Pasaia, Andoaingo Euskalduna eta Tolosan jokatu ostean, Oviedoko fitxatu zuen 1931-1932. denboraldian.
- Oviedo bigarren mailatik lehen mailara igo zen, eta hirugarren sailkatu 1935-1936. denboraldian.
- 36ko Gerra heldu bitartean, “Pichichi” hiritan izan zen; 220 partida ofizial jokatu zituen eta horietan 220 gol sartu zituen.
- 1937an Euskal Selekzioarekin jokatu zuen, Euskadin, Europar eta Ameriketako.
- 1938an Euskadiko selekzioa azpitxapeladun geratu zen Mexikoko liga txapelketan.
- 1939an hasi eta lau denboralditan Argentinako ligan jokatu zuen San Lorenzo de Almagro taldean.
- 1943an, Mexikoko ligan Real Club Españak fitxatu zuen. 1947ra arte jokatu zuen, erretiroa hartu arte.
- Ameriketako entrenatzaile bezala Union Española (Txile), Puebla (Mexiko) eta San Lorenzo de Almagro (Argentina) taldeak zuzendu zituen.
- Ameriketako futbol ibilbidea amaitu eta Andoainera itzuli zen.
- 1992ko abuztuan hil zen, Guerrero Langara familiarekin bizi zela.



# Hamar urte dantzan



# Urnieta Dantzan jaiaren X. edizioa

**G**ezurra badirudi ere, hamar urte pasa dira, 2007. urtean, Egape ikastolako dantzarien guraso talde batek bultzatuta "Egape Dantza Elkartea" sortu zenetik, bertako dantza taldeari bultzada eman eta plazaratzeko asmoarekin, eta horixe da hain zuzen aurten ospatzen dena, elkarteak antolatutako lehenengo jardueraren 10. urteurrena. "Urnieta dantzan" jaialdiaren 10. urteurrena.

Elkartearen sorreratik, Egape ikastolako dantzarien gurasoen babesa eta ahalegina ezinbestekoa izan zen. Elkartea, ilusioz betetako 76 bazkideren martxan jarri ahal izan zen.

Aipamen berezia egitea merezi du, hamar urte hauetan bidelagun izan dugun Edu Muruamendiarazek, dantziariak motibatuzko eta euskal dantzarekiko zaletasuna zabaldu eta indartzeko egin duen lan eskergagatik.

Elkartea sortzera bultzatu gintuzten helburuak gaur egun ere indarrean jarraitzen dute: gure kultura, ohiturak eta tradizioak kaleratzea; Euskal Herrian ditugun dantza ezberdinak ikasteko eta erakusteko aukera izatea; eta aldi berean, tradizioan oinarritutako pausoekin sortutako koreografi berritzaileak jendaurrean eskaintzea.

Euskal dantza tradizionalen inguruan uztartutako berrikuntzen bidez, koreografia ikusgarri eta berritzaileak lortzen dituzte Egapeko dantzariak, eta aldi berean, nortasun propioa ematen dio taldeari. Taldearen ezaugarri berezi hau da, hain zuzen ere, jendeak gehien eskertu eta txalotzen duena.

Bestetik, Egape Dantza Taldearen presentzia eta parte-hartzea herriko ekintza, jai eta ospakizunetan areagotzen joan da urteak pasa ahala. Ia-ia ezinbestekoa bihurtu delarik Urnieta jai-egutegian. Bestalde, herritik kanpo, dantza taldeak eskaini dituen koreografi berritzaileak harrera ezin hobea izan dute.

Gaur egun, Egape Dantza Taldeak indar handia du. Berrehun dantzaritik gora ditu, adin guztietakoak (lau urte txikienean, eta hirurogei paseak helduekin). Txikien taldeak, gazteen taldeak, baita helduen talde bat ere, guztira 13 talde ari dira euskal dantzak ikasi eta eskaintzen.

Guzti honen ondorioz dantza taldea sendotzen ari da urtetik urtera. Datu zehatzak ikustea besterik ez dago. Jaialdiaren lehenengo ekitaldian 5-13 urte bitarteko 120 dantzari irten ziren plazara; Hamar urte beranduago, aurten hain zuzen, 4-60 urte bitarteko 230 dantzari arituko dira dantzan. Kopurua, beraz, bikoiztu egin da Urnieta "Marizulo" antzelerako sortutako "Koda", Egapeko dantzarien ereserki bihurtu den pieza, guztiak batera dantzatzuko dutelarik.

Lantaldeari dagokionez ere, beste horrenbeste esan genezake, hasieran, elkarte lan taldea sei kidearekin osatu zen, baina, lan-talde egonkor hau, urte-



2009ko edizioan "Urnieta dantzan" jaialdian aritu zen dantzari taldea Plazido Muxika plazan.



"Urnieta dantzan" sorrerako urte hartako argazkia.

**Jaialdiaren lehenengo ekitaldian 5-13 urte bitarteko 120 dantzari irten ziren plazara; Hamar urte beranduago, aurten hain zuzen, 4-60 urte bitarteko 230 dantzari arituko dira dantzan**

ak pasa ahala ugarituz joan da eta dagoeneko hamabost dira buru-belarri lan jarrai horretan ari direnak. Nabarmentzekoa da, baita ere, "Urnieta dantzan" jaialdian laguntzen eta parte hartzen duten guraso eta dantzazale guztien lana. Aipamen berezia merezi du Txanbolin txistu bandak, jaialdi guztietan beti prest agertu delako.

## Handik hona eta hemendik hara

### URNIETARA GONBIDATUTAKOAK

2007

#### I URNIETA DANTZAN

- Beti Jai-Alai dantza taldea (Basurto, Bizkaia).
- Tantirumairu euskal folklore taldea (Lesaka, Nafarroa).

2008

#### II URNIETA DANTZAN

- Aritz-berri dantza taldea (Arrigorriaga, Bizkaia).

2009

#### III URNIETA DANTZAN

- Jaiki dantza taldea (Agurain, Araba).
- Alai dantza taldea (Zudaire, Nafarroa).

2010

#### IV URNIETA DANTZAN

- Baztango dantzariak (Elizondo, Nafarroa).

2011

#### V URNIETA DANTZAN

- Gazte Berri dantza taldea (Sodupe, Bizkaia).

2012

#### VI URNIETA DANTZAN

- Gure Ametza dantza taldea (Mutriku, Gipuzkoa).

2013

#### VII URNIETA DANTZAN

- Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea (Arrasate, Gipuzkoa).

2014

#### VIII URNIETA DANTZAN

- Eguzki-lore (Dulantzi, Araba).
- Chorima Folklore taldea (Galizia).

2015

#### IX URNIETA DANTZAN

- Tantirumairu (Lesaka, Nafarroa).

2016

#### X URNIETA DANTZAN

- Falcons de Vilafranca (Katalunia).

### EUSKAL HERRIAN BARRENA

Egape honako herrietako dantza egunetan izan da: Lesaka, Alegia, Basurto, Agurain, Gasteiz, Iruñea, Mutriku, Sodupe, Gorliz, Arrasate, Elizondo, Dulantzi, Arrigorriaga.

# Herri dantzaria, herri bizia



Edu Muruamendiaraz eta dantzari txikiak izako maiatzaren 30ean ateratako taldeko argazkian. "Urnieta dantzan" jaialdiaren bederatzigarren edizioa izan zen hura.

**B**izipenak gogoratzen hasita, ondogogoan ditugu musikarekin izandako gora-beherak. Gauza da musika enlataturarekin joaten garela askotan, eta horrek buruhauste handiak eman izan dizkigu gehiegitan, eta apuru asko pasa izan dugu, bai arduradunek, bai dantzariak (aparatuak nola funtzionatzen duen ez genekielako, edo kableren bat falta zelako, edo CDa apurtuta zegoelako, edo...)

Bitxikeriak aparte, orotzape guztiak zapore gozokoak izan dira. Gogoan dugu, bereiziki, Sortzen-Ikasbatuaz elkarrekin Iruñako Takonera parkean antolatzen zuen jaialdi erraldoian Egapeko dantzarien parte hartzea, urte askotan zehar, agian, egun osoko jaialdia zelako, jendez lepo egoten zelako, eta erakusten zituzten koreografiak oso berritzaileak egiten zitzaizkielako bertaratzen zen publikoari (askok galdetzen ziguten nondik gentozen. Euskal dantza talde tradizioaletara ohituta baitzeuden).

Bestalde, beti saiatzen gara talde ezberdinak mugitzen adinaren eta jaialdiaren arabera, oso motibagarria izaten baita dantzarietako herritik kanpora beren dantzan erakusteko aukera izatea. Nabarmentzekoak dira ere Euskal Herritik kanpoko irteerak. Bai Chorima talde galiziarrek antolatutako "Carballeira do Aidon"n o Festival Folklore Jaialdian, baita, Vilafranca del Penedés-en Falcosnek luzatutako gonbidapena "Vijazz" jaialdiaren baitan.

Aurten Loiolako Nazioarteko XXVIII Folklore Jaialdian parte hartzeko gonbidapen berezi bat jaso dugu, uztailaren 31n ospatuko dena. Portugaleteko Nazioarteko Jaialdiari lotuta dago; beraz, aurten beste herrialdeetako folklore tal-



Goian, ezkerretik hasita: Ane Loinaz, Koro Berasategi, Jaione Jauregi, Edurne Lete, Eva Pérez, Idurre Urreaga eta Mirari Arozamena. Eserita, ezkerretik hasita: Jose Tena, Ixabel Salaberria, María Sandonis, Axun Fernandez, Karmele Ikobalzeta, Jaione Larrañaga, Izaskun Bilbao eta Axun Jauregi.

deekin partekatuko duen euskal taldea Egape Dantza Taldea izango da, eta ardura berezi bat ere bada taldearentzat, tradizio handiko jaialdia baita, eta oso garrantzitsua jaialdien artean, eta aurten, "Urnieta hegapean" eta taldearen beste bideo batzuk ikusi ondoren, koreografi berritzaileetara irekitzeko apustua egin dute Egapeko dantzariak gonbidatuz. Aurten ere, Eskoriatzako San Pedro jaixetan "Begiradak dantzan"

**Aurten Loiolako Nazioarteko XXVIII Folklore Jaialdian parte hartzeko gonbidapen berezi bat jaso dugu, uztailaren 31n ospatuko dena**

ikusizuna erakutsiko dute herriko plazan, kasu horretan, 40 dantzari igoko dira oholtzara.

**BERTSOA:**  
**NAROA AGIRRE AROZAMENA**

Egape Dantza Taldea ezaguna izatea, pixkanaka lortu dugu zuengana iristea. Eduk ta antolatzaileek daukaten borondatea, gure sormeneko ideiak egin errealitate,

dantzarien sentipenak dantzatzu adieraztea, izerdi eta lanketa, ez da kasualitatea, hamar urte luzeetan oinekin sortzea artea.

\*Narrea Egapeko dantzaria da.

# Ekitaldi sorta datozen egunetan

## Maiatzak 20-29

### Erakusketa

“10 Urnieta Dantzan” irudietan.

Lekaio.

17:30-19:30 Astelehenetik ostiralera

11:30-13:00 Larunbata, igandea.

Oharrak:

\* Erakusketako argazkiak salgai maiatzaren 29an (11:30-13:00).

\* Maiatzaren 28an itxita izango da.

## Maiatzak 23, 24

### Tailerra

Dantzarien atontze txokoa.

Lekaio.

Dantzariak atontzen ikasteko txokoa zabalik: zapiak, alpargatak, gerrikoak...

Ordutegia: 17:30-19:30.

## Maiatzak 27, ostirala

### Txupinazoa

Dantza saioa Txupinazoan.

20:00 San Juan plaza.

## Maiatzak 28, larunbata

### Urnieta Dantzan

Egun osoko ospakizuna.

11:00 Dantzarien topagunea Ega-  
pe ikastolan.

11:45 Kalejira herriko kale eta  
plazatan zehar.



12:00 Txikien emanaldia San Juan plazan.

13:00 Emanaldi berezia hamargarren urteurrena ospatzeko, dantzari guztien parte hartzearekin, Plazido Muxika plazan.

14:30 Bazkaria Egape ikastolan.

18:30 Kaledantza & Vilafrankako Falcons taldea. San Juan plazan hasiera emango zaio dantza herriko saioari, Vilafranca del Penedés-eko Falcons talde gonbidatuarekin batera.

Jarraian, Idiazabal kaletik zehar zabalduko dira dantza herrikoiak eta Falcons taldearen saioak: giza irudiak, batzuk besteen gainetik igoz irudiak osatzera iritsi arte: Altuera, oreka, indarra edota talde esfortzuak egiten du posible irudi hauek lortzea, ikusteko aukera duten guztien gozamenerako.

“Falcons de Vilafranca” taldeak 50 urte baino gehiagoko historia du. Kataluniako zein kanpoko festa ezberdinetan giza irudiak eskaini dituzte.

## Maiatzak 29, igandea

### Dantza-soka herrikoia

San Juan plaza.

12:30 Gazte dantza-soka herrikoia gaztetxoek eskutik.





Ekitaldi sorta datorren maiatzaren 26an hasita

## Urteurrena ospatzeko jolasak haurrentzat

**Karrikako Ludotekak** 25 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko jolasez betetako egitaraua antolatu dute datorren astera. Maiatzaren 26an, ostegunarekin, "Udaberria plazan" festa egingo dute Zumea plazan. Bertan, jolas ugari egingo dira: aurpegi margoketa, letxu landaketa, jolas kooperatibak, txotxongiloak, grafitiak, musika zuzenean...

Larunbatean, berriz, Ludotekan bertan egingo dituzte ospakizunak: "Jolasak, txapa tailerra, txotxongiloak, txokolatada... Andoaingo haur guztiak gonbidatuta daude", azaldu du **Karmele Albeniz** hezitzaileak. Bestalde, ekainaren 2an, ludoteka kalera ateratzeko asmoz, jolasak egingo dituzte arratsaldean zehar Arantzibia plazan.

Horrez gain, maiatzaren 24an hasita, argazki erakusketak egingo da Ludotekan. Bertan, argazki zaharrak egingo dira ikusgai; beraz, andoaindar guztiak animatu dituzte bertara, azken 25 urte hauetan egon den aldaketa ikusi eta aspaldiko garaiki gogora ekartzeko.



Karmele Albeniz hezitzailea iragarri dituzten ekitaldien ohartxoarekin.

<b>Egitaraua:</b>	<b>12:30</b> Apatxi eta bere lagunak txotxongilo saioa.
<b>Maiatzak 26, osteguna:</b>	<b>17:00</b> Kulkirekin jolasak.
<b>17:30</b> Udaberria plazan, Zumean	<b>18:00</b> Txokolatada.
<b>Maiatzak 28, larunbata:</b>	<b>Ekainak 2, osteguna:</b>
<b>11:30</b> Jolasak eta txapa tailerra Karrika ludotekan.	<b>17:30</b> Arantzibia plazan jolasak.

Hitzaldia ostegun honetan Urigainen, 19:00etan hasita

## Bidea itxita, Inturia parean

Leitzarar haraneko ibilbidea, Inturia presaren ondoan, erabat itxita dago maiatzaren 10az geroztik. Foru Aldundiaren jabetzarena da bidea, eta Ur Agentearekin batera, presa zenaren ingurua txukuntzeko hartu dute erabaki hori. Azaroko euriteen ondorioz, Inturia presa ondoan lur-jausia gertatu zen, bertan dagoen pistari eraginez. Lur-jausi honek ibilgailuen zirkulazioari, oinezkoiei eta txirrindulariei eragiten zien arriskua ikusirik, lanak amaitu arte bidea itxita egongo da. Neurria erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko hartu dute.



Inturia presa urez beteta zegoenean, 2012ko maiatzean.

### HITZALDIA URIGAINEN

Natura 2000 Sareko Europako eguna dela eta ostegun honetan (maiatzak 19) arratsaldeko 19:00etan Life Irekibai proiektuari buruzko hitzaldia eskainiko dute Urigainen. Hitzaldi horretan bertan Inturiako obren berri emango dute.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza

## Bertako eta Donostialdeko txistularien kalejira



Jose Inazio Ansorenaren zuzendaritzapean aritu ziren.

Andoaingo kaleetan barrena kalejira jardun zuten Andoaingo, Hernaniko eta Donostiako zenbait txistulariek, joan de astelehen arratsean. Donostiako Udalaren txistulari bandako zuzendari den Jose Inazio Ansorenak zuzendu zuen taldea eta errepertorio zabala eskaini zuen honetarako, astelehen batean halako

musikarik espero ez zuten herritarren harridurarako. San Isidro egunaren bueltan, azken urtetan ohitura bihurtu dute Donostialdeko txistulariek kalera irtetearena. Txistuarien zabalkundearen alde izugarriko lana egin zuen Isidro Ansorena txistularia gogoan edukitzeko probesten dute okasioa.

## Maskorra Sorabillako elizan



Anizeto Azurmendi, Nazario Maiz maskorraren egilea eta Manolo OIartzabal Sorabillako erretorea.

Santiago bideetako bat Andoaindik barrena igarotzen da. Andoain, beraz, erromesen pasalekua da. Ibilaldia gogoratze aldera herrigunean zehar maskorrak ikus daitezke, besteak beste, Zumea ka-

lean. Ez da kasualitatea Andoaingo bi elizak San Martin izena edukitzea. Frantziako errosemene eraginez izendatu zituzten horrela. Andoain jarritako azken maskorra Sorabillan ipini berri dute.

## Erraustegiaren arriskuaz ohartarazteko kanpaina

Erraustegiaren eraikuntza dela eta, Buruntzaldea osoan erai-kin horren arriskuaz ohartarazteko buzoiketa egin dute.

**Ipar Haizea** elkarteak, gai horri lotuta, andoaindarrak datorren astelehenerako (maiatzak 23) bildu nahi ditu 19:00etan Nafarroa plazan deitu duten hitzorduan. Maiatzaren 29rako Donostian deitu duten giza katearen aurkezpena egingo dute. Luntxa eta gero, argazkia aterako dute.



Buzoiketa Andoainen.



## KIROL ALBISTEAK

### Kirol festa eta erakustaldiak larunbat honetan Urnietan

Ikastetxeko kideen arteko Eskola Kirola urteroko festa larunbat honetan izango da goizeko 09:00etan hasita.

Arratsaldean Gimnasia artistiko erakustaldia izango da 16:00etan hasita. 18:00etatik aurrera, judo erakustaldia.

### Martin Lizeaga Gipuzkoako txapelduna boloetan

Aurreko larunbatean Idiazabal-en Gipuzkoako 36 bolari onenak bildu ziren eta txapela **Martin Lizeaga Baldak** lortu zuen. Denboraldi osoan zehar aritu direnen arteko lehiaketan, beraz, urnietarra garaile. Zorionak! 75 ute beteta sasoiko dago Lizeaga.

Zortzi tiradatako bi txandatan, tirada bakoitzean sei bolo botaz lehenengo postua lortu zuen. Zeferino Agirre



segurarrarekin berdindu ostean, desentpatea egin behar izan zuten.

### Zanpatuz txiki eguna



Txikienekin mendira joateko aukera baliatu zuten Urnietan, aurreko asteburuan. Berrogeita hamar lagunetik gora agertu ziren Besabin ipinitako hitzordura. Handienak Ondditik barrena ibili ziren eta txikienekin "Altxorren bila" jolasa baliatuz Mulliskoraino iritsi ziren.

Handik Xoxokako aterpetxera jaitsi ziren hamaiketako goxoa hartzera. Zanpatuz elkarteak bigarren urtez jarraian txikienentzat irteera antolatu du. Gerora ere asmo berari eutsi nahi diote, irteera agertu ziren guztiak oso gustura izan zirela adierazi baitzuten.

### Zanpatuz, datozen irteerak

Urnietako mendi elkarteak dagoeneko ekaineko eta uztailako irteerak antolatu ditu, zinez interesgarriak biak. Izena emateko epe zabalik dago ekainaren 3ra arte, Kantoi tabernan.

**HIRU ERREGEN MAHAIA**  
Ekainak 11, larunbata  
Zortzi orduko ibilaldia.

**IBON ESTANES-BISAURIN**  
Uztailak 2-3  
Asteburua Lizarako aterpean.

## Txirrindularitza egokitua Ama Kandida etorbidean



Sari banaketa ekitaldia, Etxeberrietako plazan.

Txirrindulari egokitua kriteriuma jokatu zen joan den larunbatean, Ama Kandida Etorbidean osatutako zirkuituan. XI. edizioa izan zen larunbatekoa, Andoaingo Batzokiak antolatuta, eta jada Euskal Herriko eta estatuko txirrindulari egokituentzat ezinbesteko hitzordua bilakatu dena. Txirrindulari egokituko onenak Andoaingen bildu ziren.

Distantzia motzeko probak egiten dira bata bestearen segidan, zirkuituak erraztu egiten du abiadura handian egin ahal

izatea denak ere, eta ezaugarri horiei esker ikusgarritasuna da nagusi kriteriumean.

Modalitate eta txapelketa ezberdin zeuden jokoan, eta honako txirrindulariak irten ziren irabazle:

- Handbike: Renata Kaluza, Iban Manuel Montero (Kriteriuma) eta Jon Galarraga (Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa).
- Trizikloak: Aitor Garziarena eta Gonzalo Garcia.
- Tandema: Felix Martin-Abraham Del Caño (Kriteriuma),

eta, Jon Estensoro-Joxe Mari Lekuona (Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa).

- Bizikleta: Oscar Garro (Kriteriuma), Guillermo Prieto (Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa, MC2, MC3 MC4 eta MC5).
- Emakumeentzat sari berezia: Renata Kaluza eta Jone Basterra.

Aurreko larunbateko txirrindulari jardunaldiko argazkiak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



# KIROL ALBISTEAK

## Herriarteko partidak asteburu honetan Arraten



Aurreko asteburuan lehiari aritu zen seikotea Andoni Alvarez prestatzailearekin batera.

### ANDOAIN 3-0 ERRETERIA Andoain 22-21 Erreteria Kad.

Gomez-Artola.

### Andoain 22-14 Erreteria Jub. Iraola-Usandizaga.

### Andoain 22-6 Erreteria Nagusiak Eskudero-Etxeberria.

### HERRIARTEKOA, JOANEKOA ERRETERIA 0-3 ANDOAIN Erreteria 8-22 Andoain Kadeteak Iruetagoiena-Artola.

### Erreteria 8-22 Andoain Jubenilak Iraola-Usandizaga.

### Erreteria 5-22 Andoain Nagusiak Eskudero-Etxeberria.

### HERRIARTEKOA ASTEBURUKO PARTIDAK ARRATEN

#### Andoain-Astigarraga eskuz Maiatzak 20, ostirala. 20:30.

#### Andoain-Olaberría palaz Maiatzak 21, larunbata. 17:00.

### ITURZAETA MEMORIALA

#### 2. jardunaldia:

Iradi - Labiano	30
Arozena - Mariñelarena	40
Ibarguren - Andonegi	40
Milhet - Andueza	26

Zailtasun askorik gabe gaintu zuen Andoain taldeak Erreteria, eskuzkoan. Erreterian ere hiru partidak irabaztetik zetozen Andoaingo pilotariak, eta errepikatu egin ziren emaitzak, etxekoan alde. Urtzi Artola eta Eneko Gomez, Asier Iraola, Imanol Usandizaga, Yon Eskudero eta



Iraola lehen planoan, eta atzean Usandizaga jubencil mailako partidari.



Eskudero nagusien mailako aurrelaria. Adi-adi begira du Etxeberria taldekidea.

Unai Etxeberria pilotariak jokatuz Andoaingo elastikoarekin. Ikusle mordoska bildu zen Arraten larunbat arratsan, baina gehiago espero dira hurrengo kanporaketarako; Astigarragaren kontra izango da, hain zuzen.

Kanporaketa lehiatuagoa izango da, Astigarragak talde

sendoa osatzen baitu. Ostiralean da hitzordua, 20:30etik aurrera.

Bestalde, palako mutilek ere aurrera egin dute, Donostia gaintu eta gero. Olaberriako palistak izango dituzte aurkari. Hauei ere etxean egokitu zaie joaneko neurketa: larunbatean, 17:00etan hasita.

## Kirol Astea, lehen hitzorduak



### Maiatzak 25, asteazkena

19:00. Ubitarte.  
Real Sociedad-Añorga.  
Euskal Herriko emakumezkoen VI. Kopako partida.

### Maiatzak 30-Ekainak 3

- Zer dakizu kirolaz? Gazte Lehiaketa.
- Goiburu Golfean dohainik aritzeko aukera. Arratsez.

## Udako ikastaroak Andoain

Matrikulazio epea irekita dago. Izena eman daiteke kiroldegian bertan, asteleheneetik ostiralera 09:30etik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era. Informazio gehiago Kirola.andoain.eus web-

gunean. Ikastaroak ekainaren 27an hasiko dira:

- Bi hamabostaldi: Ekainak 27-Uztailak 8. Uztailak 11-22.
- Hilekoa: Ekainak 27-Uztailak 22.

## Urnieta Euskal Herrikoan

### TRINKETE TXAPELKETA

#### ASTEBURUKO EMAITZAK:

**Urnieta KadM 30-18 Orozko**  
Aitor Aldunberri.

**Urnieta KadM 13-30 Araba**  
Iker Elgarresta (argazkian).

**Urnieta JubM 35-33 Bizkaia**  
Imanol Odriozola.

**Urnieta SenM 23-40 Bizkaia**  
Julen Loitegi-Eñaut Esnaola.



## Areto futbol txapelketa

### A Taldea Allurralden

DAD Kutxa-Centro Extremeño Igandea, 22. 10:15.  
Ekhia-Txalaka Igandea, 22. 11:15.  
Keler-Aure Maiton Igandea, 22. 12:15.

### B Taldea Allurralden

Hogar Extremeño-Ekaitz Larunbata, 21. 14:30.  
Academia-Ondarreta Larunbata, 21. 15:25.  
Pausoka-Drink Team Igandea, 22. 09:15.

## Futbola, asteburuko partidak

### ERREGIONAL OHOREZKOA

33. jardunaldia:  
**Euskalduna 2-1 Aloña Mendi**

33. jardunaldia:

Elgoibar-Euskalduna

Sailkapena:

1. Tolosa	70 puntu
15. Euskalduna	36 puntu
16. Ordizia	35 puntu
18. Orioko	26 puntu

### PREFERENTE MUTILAK

30. jardunaldia, azkena:

**Roteta 0-0 Urnieta**

Sailkapena:

1. Baskonia	71 puntu
2. Sanpedrotarra	68 puntu
3. Trintxerpe	67 puntu
4. Añorga	57 puntu
5. Urnieta	56 puntu
16. Amara Berri	12 puntu

